

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HONDAKINEN MANTENTZE-LANAK, SEGURTASUNA ETA TRATAMENDUA INPRIMAKETA DIGITALEAN (ZEHARKAKOA)	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0930		
Lanbide-arloa	ARTE GRAFIKOAK		
Lanbide-eremua	Inprimaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Inprimaketa digitala	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Gailu digitalekiko inprimaketa	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Inprimaketa digitala prestatzea eta doitzea	Iraupena	60
	Inprimaketa digitala egitea	Iraupena	50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0483_2 EKIPOAK PRESTATZEA, PARAMETROAK DOITZEA ETA INPRIMAKETA DIGITALA EGITEA gaitasun-ataleko LB7 eta LB8 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Inprimaketa digitalerako makina eta ekipo nagusiak prebentzioz mantentzea.

- EI1.1 Inprimaketa digitalerako makinak garbitzeko eta mantentzeko erabiltzen diren erremintak eta tresnak ezagutzea.
- EI1.2 Inprimaketa digitalerako makinak plan definitu bati jarraikiz aldiari garbitzearen eta mantentzearen garrantzia azaltzea.
- EI1.3 Inprimaketa digitalerako makinaren eskuliburu teknikoetan garbiketari eta mantentze-lanei buruz agertzen diren argibideak ulertzea.
- EI1.4 Makinaren mantentze-fitxatik abiatuta, prebentzioz mantendu behar diren elementuak identifikatzea.
- EI1.5 Ekipo inprimatzaileak garbitzea eta prebentzioz eta modu estandarrean mantentzea mantentze-plan aplikagarriari eta segurtasun- eta higie-arauetara jarraikiz.
- EI1.6 Inprimaketa digitalerako makinari dagokion lehen mailako mantentze-plan bat definitzea, eta mantentze- eta garbiketaren lanak metodikoki egitea, fabrikatzailearen argibideei jarraikiz eta segurtasun-arauei, ingurumena babesteko araudiari eta laneko osasunaren araudiari erreparatu puntu hauei dagokienez:
 - Koipeak, koipe lehorrak garbitzea.
 - Paper-hautsaren hondarrak garbitzea.
 - Toner-hautsaren hondarrak garbitzea.
 - Pigmentuen eta olioaren hondar-gailuak garbitzea.

A2: Ingurumen-araudia eta hondakinak kudeatzeko aplikatzea inprimaketa digitalaren prozesuan.

- EI2.1 Inprimaketa digitalean sortzen diren hondakin nagusien ezaugarriak adieraztea.
- EI2.2 Inprimaketa digitalaren prozesuan sortzen diren hondakin manipulatu- eta biltegitate-prozesuak deskribatzea.

A3: Lan-arriskuak prebenitzeko araudia, inprimaketa digitalari berriaz dagokiona, aplikatzea.

- EI3.1 Inprimaketa digitalerako makinaren segurtasun-mekanismoak identifikatzea eta deskribatzea: gelditze-botoiak, babesak, karkasak, saretak.
- EI3.2 Inprimaketa digitalean erabiltzen diren materialak eta produktuak manipulatuak dakartzen arriskuak eta arrisku-mailak identifikatzea.
- EI3.3 Inprimaketa digitalaren prozesuan erabiltzen diren norbere babeserako ekipoen erabilgarritasuna eta erabilerak deskribatzea.
- EI3.4 Inprimaketa digitalean erabiltzen diren produktuak eta materialak ingurumen-araudiarekin erlazionatzea, eta tradizionalki erabiltzen diren produktuak araudi horri egokitzeko beste batzuekin ordeztzea aintzat hartzea.
- EI3.5 Inprimaketa digitalerako makinaren segurtasun-mekanismoak (gelditze-botoiak, babesak, karkasak, saretak) identifikatzea eta deskribatzea, baita erabili behar diren babes-bitartekoak eta arropa ere.
- EI3.6 Lan-ingurune garbitasunari eta ordenari buruzko arauak erlazionatzea eta deskribatzea.
- EI3.7 Inprimaketa digitalaren sektoreko enpresen zenbait segurtasun- eta higie-planetan:
 - Plan bakoitzeko alderdi garrantzitsuenak -plana agertzen den agerietan jasoak- identifikatzea eta deskribatzea.
 - Segurtasun-planetan osasunerako arrisku-faktoreak eta -egoerak identifikatzea eta deskribatzea.
 - Istripuak saihesteko ezarritako neurri prebentibo eta prebentzio-metodo egokiak erlazionatzea eta deskribatzea.
 - Gorabeheren kasuan egin beharreko ekintzak eta prozedurak erlazionatzea eta deskribatzea.
- EI3.8 Lan-ingurune garbitasunari eta ordenari buruzko arauak erlazionatzea eta deskribatzea.

Edukiak

1. **Mantentze-lanak eta garbiketa inprimaketa digitalean**
 - Mantentze-lan prebentiboak eta garbiketa.
 - Makinaren mantentze-fitxa.
 - Lehen mailako mantentze-plana.

2. **Inprimaketa digitalean sortzen diren hondakin solido eta likidoen tratamendua**
 - Ingurumena kudeatzeko araudiak.
 - Hondakinen ezaugarriak.
 - Pigmentu-hondakinen tratamendua.
 - Olio- eta disolbatzaile-hondakinen tratamendua.
 - Plastiko kutsatua, paper garbia, paper inprimatua, xurgatzaileak, hondakin-likido toxikoak eta bestelakoak birziklatzeko edukiontziak.
 - Hondakinak biltzea eta deuseztatzea edo transformatzea.

3. **Inprimaketa digitaleko banakako eta taldeko arriskuak**
 - Inprimaketa digitalean laneko arriskuak prebenitzeko araudia.
 - Inprimaketa digitalean aplikatzeko den banakako eta taldeko babes-ekipoen buruzko araudia.
 - Erabilitako lehengaiak eta diluzioak manipulatzeko arriskuak eta arrisku-mailak.
 - Industria grafikoen enpresetako segurtasun- eta higiene-planak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.

Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF0246 Inprimaketa digitala prestatzea eta doitzea eta UF0247 Inprimaketa digitala egitea gaindituak izan behar ditu.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Inprimaketa digitala.